



Arartekoaren ebazpena, 2011ko azaroaren 17koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio ikastetxe bateko obrak legeztatzeko espedientea ikusteko aukera eman dezan.

Aurrekariak

1. Pertsona batek, (...)ko ikastetxeko guraso elkarteko kide batek hain zuzen, Arartekora jo du eta esan digu LHren egokitzapen obrak legeztatzeko hirigintzako espedientea ikusteko aukera ukatu egin diotela.

Zentroko guraso elkarteak adierazi zuen eskolan obrak ari zirela egiten nahitaezko lizentzia eduki gabe. Hirigintza eta ingurumen arloak 2010eko urrian jakinarazi zuen lizentziarik gabeko obrak (...) zenbakiko espedientean legeztatu zirela.

Erreklamatazaileak 2011ko otsailaren 4an hirigintzako diziplina espediente hori ikusi ahal izatea eskatu zuen.

Haren eskaerari erantzunez, udalak espedientea zergatik eskatzen zuen, eskaeraren xedea zein zen eta zer agiri ikusi nahi zituen azaltzeko eskatu zion.

Erreklamatazaileak 2011ko martxoan idazki bat aurkeztu zuen espedientea eskuratzeko arrazoiak azalduz. Idazki horretan agerian jarri zuen zentroko adingabe-erabiltzaile baten aita zela eta obrak salatu zituen elkarteko kidea zela. Edozelan ere, hirigintzako diziplina espediente baten aurrean geundela adierazi zuen eta, hirigintzako legeei jarraiki, herritarrek ekintza publikoa daukate.

Udalak idazki horri erantzuna 2011ko ekainean eman zion eta esan zion zentroa egokitzeko obren lizentzia-espedientea ez zela zehazki hirigintzako diziplina espediente batena. Horregatik, azpimarratu du haren ustez erabakiak eragin ditzakeen interes legitimoak justifikatu behar direla. Horrez gain, jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurkeztutako proiektua zenez, aipatu sailera jo zezakeela proiektua ikusteko.





2. Erreklamazio honi dagokion izapidea emate aldera, Bilboko Udalarik informazioa eskatu genion hirigintzako informazio eskaerari emandako erantzunaren gainean eta behin-behinean ukatzeko arrazoien gainean.

Gure eskaerari erantzunez, Bilboko Udalak udaleko errekerimenduaren inguruko informazioa bidali digu egindako espediente honetan interesduna dela egiaztatzeko.

Bilboko Udalak uste du erreklamatzailerak ez duela jaso elkarteko ordezkariaren haren gain hartzen duenik eta haren interes pertsonalaren arabera diharduela. Bestalde, esan du erreklamatzailerak ez duela adierazi ekintza publikoa erabili nahi duenik 8.2 c) artikuluan xedatutako administrazio bidean. Haren ustez, erreklamatzailerak espedientea ikusteko, horren kopia eskuratzeko eta agertzeko eskatu du hirigintzako diziplinako prozedurentzako aurreikusitako legitimazio berezia egiaztatzeko beharrik gabe.

Udalak mahaigaineratu du hirigintzako lizentziak emateko prozedura (VI. tituluko II. kapitulua) ez dagoela Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, VI. tituluko IV. kapituluan, barne hartzen dituen hirigintzako diziplinako prozeduren barruan.

Edonola ere, zera aipatu du "Dena den, haren eskaeraren arrazoiak udal administrazio horretan Ararteko erakundearen aurrean azaldu diren moduan zehazten badira, ez da inolako oztoporik egongo interesdunari erreferentziarako administrazio espedientea erakusteko; izan ere, espediente hori artxibatu egin da, 10-12-2an baimendutako lanen gauzatze zuzena egiaztatu ondoren".

Erreklamazioa ikusita, kexan eta udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Kexa honek zera dauka hizpide: Bilboko Udalak ez du ebatzi eraikin publiko batean egindako lanak legeztatzeko espedientea ikusteko eskaera bat.

Udalak Ararteko erakundeari emandako erantzunean udal horrek espediente honetan interesdunari egiaztagiria eskatzeko jarraitu dituen izapideak jaso





dira, bai eta erreklamatzaleak emandako erantzuna ere. Bertan, hirigintzako espedienteak eskuratzeko zuen interesaren arrazoiak azaldu zituen.

Eskaeraren berriazko ebazpenik ez da jaso, ezta 2011ko ekaineko udaleko ofizioaren ostean, eskaeraren behin betiko artxibatzea ere.

2. Azaldutako kontuak herritarrek administrazio espedienteak eskuratzeko duten eskubidearekin zerikusia dauka, batez ere, hirigintzari lotutako espedientei dagokienez.

Oro har, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak herritarrek administrazioaren esku dauden fitxategi eta erregistroak eskuratzeko duten eskubidea garatu du. Alde batetik, 3. artikulua herri-administrazioei agintzen die herritarrekiko harremanetan gardentasun eta partaidetza printzipioen arabera jarduteko. Bestetik, lege horretan bi artikuluk arautzen dute informazioa eskuratzeko modua: 35. a) eta h) artikulua eta 37. artikulua. 35. a) artikulua onartzen du interesdunak eskubidea dutela espedienteen izapideak zein egoeratan dauden jakiteko eta kopiak eskuratzeko. 35 h) eta 37. artikuluek administrazio espediente amaituetako parte diren fitxategiak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea behar hartzen dute. Eskubide hori murriztu egiten da, baldin eta agirietan pertsonen intimitateari buruzko datuak badaude edo estatuaren segurtasunari edo industria sekretuari erasaten badiote. Halaber, zati batez mugatuta geratzen da eskubide hori, baldin eta hirugarren pertsonen datu izendunak agertzen badira, eskatzaileak interes legitimo eta zuzena duela egiaztatzen duen.

Horri dagokionez, interesduna zarela egiaztatzeke eskakizuna izapidetzen ari diren espedienteen kasuan beharrezkoa da. Amaitutzat jo diren espedienteen kasuan ere, eskatzailearen legezko interes zuzena egiaztatzen behar da intimitateari lotutako datuak edo datu izendunak jaso direnean.

Azken horri dagokionez, zehaztu beharra dugu datuak eskuratzeko eskubidea babesik gabeko datuen aurrean nagusitu behar dela, datu horiek isilean gordetzeko edo banantzeko formulak bilatuz. Bestalde, administrazioak, zuzeneko interesa egiaztatzeke beharra exijitze aldera, intimitatean eragina izan dezaketen edo izendunak diren datuak daudela justifikatu behar du. Esku artean dugun kasuan, aipatu beharra dago datuen titularra den pertsona, pertsona juridikoa dela. Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren





13ko 15/1999 Legearen arabera, izaera pertsonala duten datuen lagapenaren babesa soilik aplikatu daiteke pertsona fisikoen kasuan eta ez pertsona juridikoen kasuan. Bestalde, Konstituzio Epaitegiaren jurisprudentziak zenbait kasu zehatzetan pertsona juridikoen oinarrizko eskubideak jorratu ditu (etxebizitzaren urrakortasunik eza edo jakinarazpenen sekretua). Hori aintzat hartuta, ulertu dugu dagoeneko bukatutzat jo den hirigintzako espedientea barne hartzen duten datu zehatzak eskuratzeko aukera ukatzeak arrazoitze berezia behar zuela.

3. Bestalde, hirigintzako legeriak kontu hori berariaz arautu du. Lurzoruari buruzko legearen testu bategina onartu duen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu legegileak zera jaso du: herritarrek herri-administrazioek lurraldearen antolakuntza, hirigintzako antolamendua eta haren ingurumen ebaluazioari buruz duten informazio guztia eskuratzeko duten eskubidea, bai eta legeria arautzaileak ezarritakoari jarraiki, xedapenen edo administrazio egintzen kopia edo ziurtagiria eskuratzeko eskubidea ere.

Euskadin, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak herritarren parte hartzearen gaineko printzipioa arautzeaz gain ondorengoak ere erregulatzen ditu: plangintzaren, gauzatzearen eta diziplinaren inguruko prozeduretan interesdun gisa jarduteko eskubidea, espedienteetan dagoen dokumentazioa eskuratzeko eskubidea, betiere, legerian ezarritako mugak aintzat hartuta eta hirigintzako legezkotasunaren alde defentsa publikoa gauzatzeko eskubidea.

Udaleko txostenean hirigintzako diziplinari buruzko prozeduretan interesdun gisa agertzeko eskubidearen interpretazio literal bat mahaigaineratu da. Hirigintzako diziplinako prozeduratzat jo dira 2/2006 Legearen VI. tituluko IV. kapituluan sartutakoak (ezkutuko jarduerak), hirigintzako lizentziak edo hirigintzako ikuskapena emateko prozedurak baztertuz.

Gure ustez, interpretazio literal hori ez dator zuzenbidearen alor batean, hala nola, hirigintzaren arloan, nabarmendu behar diren eskuratzeari eta gardentasunari buruzko gainontzeko printzipioekin bat. Izan ere, legegileak, estatu mailakoak zein autonomikoak, herritarrei hirigintzako legezkotasuna betetzen den kontrolatzeko hirigintzako prozeduretan parte hartzeko eskubidea eman nahi izan die.





Beste alde batetik, interesdunaren eta ekintza popularraren ondorioz legekotzat jo den pertsonaren artean bereizteak eragin dezake bigarrena egoera berean ez egotea babes judizial eragingarriari lotutako eskubideari dagokionez. Ekintza publikoak, legekotasuna bete dezaten exijitze aldera, administrazio bidean dagozkion ekintzak gauzatzeko aukera ematen du. Paradoxikoa da legegileak hirigintzaren alor guztietan pertsona guztiak interesdun bihurtu izana eta, jakinaren gainean, hirigintzako baimenen alorrean, salbuespena ezarri izana eta interesdunak zuzeneko interesa egiaztatzen behartu izana. Informazio hori eskuratzea funtsezkoa da ekintza publikotik eratorritako eskubideak modu zuzenean gauzatzeko aldera (hau da, ebazpenen aurkako salaketa edo errekurtsioa). Eskaera egin zen unean hirigintzako informazio hori eskuratzeko ezinezkotasunak administrazio prozeduretan zein prozedura judizialean parte hartzeko eskubideak urratu egin zituen, Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua babes judizial eragingarriaren eskubideak jasotakoarekin bat eginez.

4. Esku artean dugun kasu zehatzari dagokionez, zehaztu beharra dago Bilboko Udalak uste duela (eta hala adierazi du 2010eko abuztuaren 25eko eta 2011ko otsailaren 17ko ofizioetan) espediente hori elkarteak hala eskatuta hasitako hirigintzako diziplinako espediente bat dela, lanak lizentzia eduki gabe burutzeagatik hasitakoa hain zuzen ere. Espediente horrek legeztatzen errekerimendu bat eragin zuen. Horren ostean, lanak aipatutako espedientearen bitartez legeztatu ziren.

Hori dela eta, udalak aipatzen duen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 8.2.b artikulua gaineko interpretazio literalari jarraiki, ezin da hirigintzako lizentzien izapideari buruzko espedienteak eskuratzeko aukera mugatu.

Modu berean, espedientea artxibatu egin zen 2010eko abenduan baimendutako lanen gauzatze zuzena egiaztatu eta gero.

Eskaera egiten den unean espedientea amaitu bada, ez da egokia interesduna zarelako egiaztatzen eskaera mantentzea, datu izendunak eta intimitateari buruzko datuak eskuratzeko ez bada behintzat. Kasu honetan obraren sustatzailea pertsona juridikoa edo herri-administrazio bat den alde batera utzita, datuen baldintza ez zen erabili behar.





Edonola ere, Ararteko erakundeak mantendu du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 8. artikulua ondozko ekintza publikoak zera hartzen duela barne: prozesuaren edozein momentutan hala eskatuz gero edozein pertsona interesduntzat joko da ekintza publikoa prozesuari lotutako egoera berdintasunean gauzatze aldera. Horretarako, hirigintzako espediente guztiak (irekita zein artxibatuta daudenak) ikusteko eta kopia eskuratzeko eskubidea daukate, hirigintzako baimenen izapidetzea barne, betiere, administrazio prozeduraren gaineko legeriarekin bat eginez.

Gauzak horrela, erreklamatazaileak, martxoaren 4ko idazkiaren bitartez, obrak legeztatzearen inguruko informazioa nahi zuela adierazi zuen eta bere alde dagoen ekintza publikora heldu egin zen.

Laburbilduz, antzeman dugu erreklamatazaileak aipatutako espedientea ikusteko eskubidea gauzatzeko inguruabar guztiak betetzen direla.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

46/2011 GOMENDIOA, azaroaren 17koa, Bilboko Udalari egina

(...) ikastetxeko obrak legeztatzeko espedientea ikusteko eskaeraren ondoriozko espedientearekin aurrera egin dezaten (...) espedientea) eta erreklamatazaileari ikusten utz diezaioten, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

